

Kimika Sintetiko eta Industrialia Masterra.

Master Amaierako Lana

Ikasleek ikerketa proiektu esperimental bat (30 ECTS) garatu beharko dute, zeinean Masterrean zehar jasotako ezagutza eta gaitasunak azaldu beharko dituzten

Proiektua garatu ahal izango da hiru Unibertsitateen baitan [Masterrean parte hartzen duten ikerketa taldeetako](#) laborategiren batean; baita ere, hitzarmen bidez adosturiko erakunde kolaboratzaileetakoren batean, aurkezturiko eskeintzen arabera (ikus aurrerago) (baita ere, ikusi [MALen eskeintza](#) dokumentua).

Gaiaren aukeraketa lanaren zuzendariarekin batera egingo da, ikasturte bakoitzean dagoen eskeitzaren barruan. Ikaslearen ardura nagusietarikoa izango da, lanaren garapenaz gain, honen plangintza, eta horrez gain erakutsi beharko ditu ekimena eta antolatzeke gaitasuna.

Lana ikasturtean zehar garatu beharko da. Bertan, laborategiko eginbeharrez haratago, ikasleari eskatuko zaio bibliografiaren bilaketan, mintegietan eta gainerako formakuntza ekiminetan parte hartzea, beti ere lanaren zuzendariaren jarraibideak haintzat hartuz, hauek ikasleari egokituta egon beharko dutelarik. Amaitzeko, ikasleak txosten bat aurkeztu beharko du eta berau defendatu horretarako Masterreko Batzorde Akademikoak izendatuko duen Ebaluaketa Batzordearen aurrean.

Master Amaierako Lanen aurkezpenak publikoari irekiak izango dira eta, ahal den neurrian, hiru Unibertsitateen parte hartze bateratuarekin.

Master Amaierako Lanak, gaztelaniaz gain, euskeraz eta ingelesez ere egin ahal izango dira.

Ikerketa Taldeak

Ikaslea harremanetan jarri beharko da hiru Unibertsitateetako ondorengo Ikerketa Taldeetakoren batekin MALa aurrera eraman ahal izateko.

(Baita ere, gainbegiratu ikasturte honetarako [MALen eskeintza](#) dokumentua)

Ikerketa Talde bakoitzaren webgunea arakatzea gomendatzen dizugu talde bakoitzaren ikerketa lan hildoak eta beste informazio osagarria ikusi ahal izateko.

UPV/EHU

Arabako Campusa: Farmazia Fakultatea, Vitoria-Gasteiz

- [Sintesi Organikoa Medikuntza Kimikoan](#)
Kimika Organikoa I saila

Bizkaiko Campusa: Zientzia eta Teknologia Fakultatea eta Biofisika Institutoa (Leioa)

- [Metodologia Sintetiko Berriak](#)
Kimika Organikoa eta Ezorganikoa saila, FCT/ZTF
- [Organometalikoak Sintesian](#)
Kimika Organikoa eta Ezorganikoa saila, FCT/ZTF
- [Sintesi Asimetrikoa, Kimika Sostengarria eta Prozesu Biomimetikoak](#)
Kimika Organikoa eta Ezorganikoa saila, FCT/ZTF
- [Fluoronanotools Lab](#)
Biofisika Institutoa

Gipuzkoako Campusa: Kimika Fakultatea eta Joxe Mari Korta Zentrua, Donostia – San Sebastián

- [Katalisi Asimetrikoa eta Sintesi Kimikoa](#)
Kimika Organikoa I saila, Kimika Fakultatea
- [Katalisi Sostengarria. Metodoak eta Konputazioa](#)
Kimika Organikoa I saila, Joxe Mari Korta Zentrua
- [Kimika Bioorganikoa eta modelizazio Molekularra](#)
Kimika Organikoa I saila, Kimika Fakultatea
- [Kimika Organikoa Konputazionala](#)
Kimika Organikoa I saila, Kimika Fakultatea

Beste erakunde parte-hartzaileak



[CIC BioGUNE](#), Bizkaiko Parke Teknologikoa, Derio

[Chemical Glycobiology Lab](#)



[CIC BiomaGUNE](#); Gipuzkoako Parke Teknologikoa, Donostia - San Sebastián

[Radiochemistry and Nuclear Imaging Lab](#)

[Heterogeneous Biocatalysis Lab](#)



[CIC EnergiGUNE](#) Arabako Parke Teknologikoa, Miñao

[Advanced Electrolytes and Cell Integration](#)

Valladolideko Unibertsitatean

Cinquima Institutoa (Valladolid)

- [Katalisi Homogeneoa Kimika Finean eta Polimeroetan](#)
- [Kristal Likidoak eta Materiale Berriak](#)
- [Molekula Ezorganikoak eta Organometalikoak Trantsizio Metalekin \(MIOMeT\)](#)
- [Sintesi Asimetrikoa](#)
- [Banaketa Teknikak eta Analisi Aplikatua](#)

Nafarroako Unibertsitate Publikoan

**Nekazaritza Ingeniaritzako eta Biozientzietako Goi Mailako Eskola Teknikoa,
Zientzien saila, Iruña**

- [Sintesi Asimetrikoa](#)
- [Baliagarri Berriztagarrien Berbalorizaziorako Erreaktore Kimikoak eta Prozesuak](#)
- [Ingurugirorako Teknologiak eta Aplikazioak \(TAMA\)](#)

KIMIKA SINTETIKO ETA INDUSTRIALA MASTERRA

II

Master Amaierako Lana txostenaren aurkezpen eta defentsarako argibideak

Master Amaierako Lanaren aurkezpen eta defentsarako, ikasleak Txosten bat egin beharko du, zeinak bilduko duen lanaren inguruko informazio guztia. Lan hau Ebaluaketa Batzorde baten aurrean aurkeztu eta defendatu beharko da, berau Masterreko Batzorde Akademikoak izendatuko duena. MALen defentsa publikoa izan beharko du eta modu bateratuan egingo da Master honetan parte hartzen duten hiru Unibertsitateen artean.

Oro har, Txosten honek ohiko txosten zientifikoek dituzten ondorengo atalak izango ditu:

Sarrera,
Helburuak,
Emaitzak eta Eztabaida,
Zati Esperimentala,
Ondoriak,
Bibliografia

Aurreko egitura hau alda ahalko da lanaren ezaugarrien arabera, beti ere lanaren zuzendariaren onepenarekin.

Ez da gehieneko edo gutxieneko orrialde kopuririk ezartzen, baina 50 orrialde jo daiteke batzbesteko luzera egokia, ohikoa den idazkera formatu batean (DIN-A4, 11-12ko hizkiak, 1.5eko lerroartea eta eskema eta erreferentzia bibliografikoentzat ACSko estiloa erabiliz).

Ebaluaketa Batzordera aurkeztuko den txostenak MALaren zuzendariaren aurretiazko onspena izan beharko du.

Master Amaierako Lanaren aurkezpena ekitaldi publikoan egin beharko du ikasleak, bertan ahoz adierazi beharko dituelarik lanaren emaitzak eta ondorio nagusiak, 10 minutu inguruko denbora bitarte batean. Ondoren, Ebaluaketa Batzordeko kideek egin ahal izango dizkioten galdera eta iruzkineei erantzun beharko die ikasleak (beste 10-15 minutu).

Txostena bera, aurkezpena egin baino gutxienez 5 egun lehenago eskuragarri ipini beharko du ikasleak, horretarako ikasturte bakoitzean emango diren jarraibideak jarraituz. Txostena paperean inprimatua aurkeztea ez da beharrezkoa izango, eta nahikoa izango da pdf artxibo moduan eskuragarri ipintzea.

Masterreko arduradunak publikoki jakin araziko ditu aurkezpen eta defentsarako lekua eta data, eta hauekin batera Ebaluaketa Batzordeko partaideen izenak. Era berean, argitaratuko ditu aurkezpenen ordena eta Txostenak eskuragarri ipintzeko epeak eta jarraitu beharreko prozedurak eta gainontzeko xehetasunak, beti ere ikasturte akademiko bakoitzean indarrean dauden araudiak jarraituz.